

HERRI ZAINITZA

Polizia adeitsuaren giltza



Herri Zaintza, Herritarrak babestuak sentitzea oso garrantzitsua da komunitatearentzat. Formazio honen helburua hortaz arduratzen direnen langileen emozio kudeaketa erraztea da. Pertsonak zaintzen jarduten diren teknikari hauek, askotan informatzaile, psikologo eta epaile bihurtzen dira eta erantzun behar ez duten galdera askoren aurrean agertu. Honek suposatzen duen higadura emozionala kudeatzea ez da atsegina izaten, ondorioz, polizia eta herritarren arteko harremana krispatu egiten da. Antzerkiaren bidez, nork bere rol desberdinak ezagutzen ditu, rol bakoitzaren abantailak eta trabak, eta ondoren, era berean rol sail desberdinak ikertzerakoan, garatzeke dauden rolak frogatu daitezke. Azkenean kontua, aurreiritziei garrantzia kendu eta pertsona bakoitzarekiko rol konketuak erabiliz, herritarren zalantzak era atsegin baten argitzea da.

Mamia:

Hasteko ondo dago nork bere burua ezagutzea, zenbateraino eragiten duten emozioek gorputzean, besteen emozioek nireak eragiten dituzten eta arnasaren bidez noraino kalibratzen dudan lan hori. Partaideen harridura, lanerako gogoia bihurtuz, pertsonaia desberdinen harreman desberdinak lantzen dira, enpatiari lekua egin eta enpatia horretatik erantzun. Rol desberdinak aurkezten direnez, bizitzen diren eszenak anitzak dira eta eszena hauek ere era anitzetan kudeatu daitezkeela ikertzen da. Partaideek antzerki giroak dakartzkien urduritasunak eta erresistentziak ahalik eta lehen


gainditzean, etekin gehiago ateratzen diote formazioari. Emozioak lantzeko laborategi bat da, orain eta hemen lan egitea, konfidentzialtasun giroan eta gaizki egiteko aukera zabalik egonik, partaideak bere bizitzarako ere garrantzitsuak diren ikasgaiak jasotzen dituzte.

Baliabideak eta Eskakizunak:

- **Herri Zaintza prozesua** polizia komunitateko langileekin pentsatuta diseinatu da. Bakoitzak bere neurrian, baina denek dute aukera prozesuari etekina ateratzeko eta porturatzeko.
 - o Arkauten Ertzaintza izateko prestatzen dabiltzanei.
 - o Udaltzain korporazioei.
 - o Seguritate teknikarien eskolak.
- 6 < 16 partaide.
- Partaideek arropa komodoa ekartzea komeni da, ariketak apropos egin ahal izateko.
- Espazioa garbia ahalik eta zutabe eta altzari gutxien, zurezko lurra edota esterilekin hornitua eta 2m² pertsonako.

Onurak:

- Taldea sendotu. Partaide guztien artean harreman goxo bat sortzen da, denak etxe berdinekoak izan ez gero, kohesio lan paregabea.
- Inteligentzia emozionala. Nork bere barrenak ikertzen ditu, emozio lanketa itzela da, emozioen aberastasuna, aniztasuna eta malgutasuna biziz, enpatiak erraieran hartzen du bere lekua.
- Gorputzari arreta. Une esanguratsuak, berriak eta hunkigarriak bizitzean, une horietako jokamolde desberdinak ezagutzeko aukeraz baliatuta, gorputzari izan behar diogun arretan trebatzen da.
- Gorputzeko memoria. Gorputzak barneratuta dituen erreflexuak, distantziak, keinuak, emozioen jokabidea etab. interpretazioaz lantzen dira, irudimena eta oroimena parez pare lanean, gorputzaren memoria deskubritzen da.
- Rolak garapena. Eszenak egiterakoan, partaideek haien rola kanpotik begiratzean, hobariak eta oztopoak nabarmentzen dituzte eta beste rol batzuk landuta, abantailak irabazi ditzaketela konturatzen dira. Haien burua, gorputza eta anima babesteko egin behar dituzten aldaketak barneratu, eta jardunean dituzten pisuak arintzen dira.



Antolaketa:

- 6 orduko prozesua da.
- Saio bakoitzaren luzapena: 2 ordu.
- Antolatzaile eta bideratzaileak batzar baten bueltan azaltzen dituzte taldearen idiosinkrasiak eta martxan jartzeko ereduak.

Egitarauaren bermatzea:

- **Herri Zaintza** diseinatzeko, antzerkiaren alor desberdinetatik jaso da materiala eta teknika nabarmenena psicodrama da: Taldean egiten den terapia da, pazienteak bere patologia eszenaratzean datza. Iurgi Etxebarria psicodramako teknikan trebatu ondoren, antzerkiaren jakintzaz batu eta **Herri Zaintza** sortu du.
- Prozesua sortzeko Ertzain eta Udaltzainen aholkularitza jaso du.
- Prozesuan barneratuta, aldi oro, partaideen arreta ziurtatzen da, guztiok bat eginik goazela sentitzeko, prozesuan eginiko lana barneratzeko.
- Egitarauaren prozesua bizirik mantentzeko, ikastaldi bakoitzaren ondoren balorazioa egiten da, bai partaideekin baita antolatzaileekin ere.

Materiala:

- Apropox arduratzen da behar den material guztia ekartzeaz.

Zuen hezkuntza komunitatean, hemen azaltzen diren ikasgaiak sendotu beharra sentitzen baduzue, jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar ditugun ikasgaiei buruz hitz egiten ari gara.